

LIBURUTEGIEN Euskal Sistema

Argitalpen honek eskaintzen didan aukera aprobetxatu nahi dut Euskadiko Liburutegi Sistemaren kudeaketan modu batera edo bestera gurekin parte hartzen duen pertsona oro agurtzeko. Gutariko bakoitza –erakundetako arduradunak, kudeatzaileak edota liburuzainak- kalitatezko zerbitzu publiko bat emateko elkarrekin lan egitera behartuta gaude, gure eguneroko esfortzua hiritarren irakurtzeko duten eskubidea eta eduki eta medio informatiboak eskuratzeko modua sustatu eta bermatzeko.

Agerikoa da, azkenaldian, agertoki berri baten aurrean aurkitzen garela, gure inguruan gertatzen ari diren aldaketek zein informazioaren eta teknologia berrien gizarteak dakarren egungo esparrutik ondorioztatzen diren eskakizunek eragindakoa.

Agertoki berri honek, Administrazio Publikoentzako erronka berri bat suposatzen du. Gizartearen eskakizun berri horiei erantzuna eman behar diete eta, gainera, behar adinako berehalakotasun, bizkortasun eta malgutasunarekin, planteatutako beharren eta emandako zerbitzu motaren arteko orekarik eza ekiditzeko asmoz.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila ez dago errealitate horretatik kanpo eta ondorioz, hurrengoko urteetarako, Euskadiko Liburutegi Sistemaren hobekuntzarako izatea espero ditugun neurri ezberdinak gauzatzea proposatzen dugu. Neurriok, araudiari dagozkionak (Liburutegien Legearen erregelamendu garapena), antolakuntzari dagozkionak (Euskadiko Liburutegi Sistemaren eta Irakurketa Sare Publikoaren egituraketa) edota prestakuntzari dagozkionak (liburutegietako profesionalen berariazko prestakuntza gaitasun digitaletan eta eduki berrietan) izango dira.

Liburuzaintza eremua osatzen dugun orori agurra luzatuz hasi dut aurkezpena, eta gurekin batera erantzunkizun eta helburu berak partekatzen dituzten erakunde eta pertsonen gure lankidetzaren eta laguntasuna eskainiz amaiera eman nahi diot.

José Luis Iparragirre Mujika
Kultura Ondarearen Zuzendaria

Jardunaldia: “Liburutegiak eta sare sozialak”

Pasa den abenduaren 16an, “liburutegiak eta sare sozialak” lemapeko jardunaldia burutu zen Donostiako Miramongo Teknologia-Parkean.

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak, KZguneak eta EIGPk (Euskadi Informazioaren Gizartean Plana) elkarrekin antolatutako jardunaldi honen helburua, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko liburutegietako profesionalen **teknologia aurreratuen prestakuntza-plana** aurkeztea izan zen.

UOC- Oficina Oberta d’Innovació-ko zuzendaria den David Maniega izan zen partaideetariko bat. “Existir y estar, nuevos (neo)dilemas de las redes sociales y las bibliotecas” izenburuko hitzaldian aipatu zuenez, liburutegiak oso argi izan behar du nola eta zergatik erabaki duen sare sozialetan parte hartzea. Hau da, alde zuzenetik, sare sozialetan egoteko estrategia bat antolatu beharko luke.





EIGP-ko (Euskadi Informazioaren Gizartean Plana) arduraduna den Ana Vitorica-k, bere aldetik, teknologien balioa azpimarratu zuen berrikuntza sozialaren eragile gisa.

Jardunaldiari amaiera emateko, Josi Sierrak “udaberri galdua” blog-aren aurkezpena egin zuen, 2.0 tresnak erabiliz garatutako hezkuntza proiektua.

Honekin batera, José Luis Iparragirrek, Kultura Ondarearen zuzendariak, “teknologia aurreratuen prestakuntza plana” aurkeztu zuen. Plana, liburutegietako profesionalen birziklatze eta etengabeko prestakuntzaren beharra dela-eta sortu zela aipatu zuen. Profesionalak, “arrail digitala” deiturikoa ekiditu eta batez ere bere eguneroko zereginekin harremana duten programa eta aplikazioak ezagutu eta erabiltzeko aukera izan behar dute.

Prestakuntza plan hau oinarriko mailatik hasten da, profesionalak abiapuntu ezberdinetatik abiatzen baitira eta garrantzitsuena denak helmuga berera iristea baita. Xedea, eguneroko eginkizunetarako oinarrikoak diren tresnak menperatzeaz gain, IKT-en erabileraren bitartez esperientzia eta ezagutza konpartitzen duten profesionalen elkarte bat sendotzea izango litzateke.

Egitasmoa, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi zerbitzuak **koordinatzen** du eta **EIGP** eta **KZgunearen** laguntzaren bidez garatu da. Dударik gabe, aurretik aipatutako ezaugarriak betetzen dituen plan bat martxan jartzeko balio handiko bi aliatu.

Eusko Jaurlaritzak **finantzatutako** plana izanik, udalei konpromisoa eskatzen zaie, liburuzainek bertaratzeko aukera izan dezaten. Hauen parte hartzea ez bada bermatzen, profesionalak prestakuntza aukera galduko lukete, eta honek IKT-en erabilpenean eta menperatzean desoreka nabarmena ekarriko luke Euskadiko online sarea osatzen duten langileen artean.

Planaren helburu orokorrak:

Proiektuarekin helburu hauek lortu nahi dira:

1. IKT-etako gaitasunen definizioa “liburuzain digital” deiturikoaren jarduerak modu etengabe eta arrakastatsuan egiteko.
2. Gaitasun digitalak lortzeko prestakuntza-ibilbidearen diseinua, tresna eta material erabilgarrien aurkezpena barne.
3. Euskadiko sareko liburutegietan proposaturiko tresnen erabilerara zuzendutako taldekako zein autoikaskuntza prozesuaren arteko konbinazioa.
4. IVAP-en (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) baldintzen eta prozeduren arabera prestakuntza-ekintzen homologazioa.

Prestakuntza-ibilbidea lau mailatan egituratu da. Mailarik oinarrikoenetik hasi- planaren edukiekiko lehendabiziko hurbilpen gisa- eta maila aurreratuan bukatzen da, prestakuntza planaren izenburuan jasotzen den bezala.

Maila bakoitzak, “liburuzain digital”-arentzako ezinbestekotzat jotzen diren gaitasun digitalak lortzeko ikastaroak biltzen ditu. Aurreikusitako garapena honakoa litzateke:

1. 2010eko otsaitetik ekainera: lehen eta bigarren maila.

- a. Prestakuntza.
- b. Monitore batek gainbegiraturako proiektua.
- c. Liburutegi bakoitzak egindako proiektuen aurkezpena.

2. 2010eko uztailetik abendura: hirugarren maila.

Maila honi dagokion programazioa udaren amaiera aldera aurkeztuko litzateke. Honetan, ikastaro berriak gehituko dira eta aurretik emandako maila bietako gai batzuk sakonkiago jorratuko dira. Honek, liburutegi bakoitzak landutako proiektuaren hobekuntzan eragina izango du.

3. 2011ko urtarrila-ekaina: laugarren maila.

4. 2011ko uztaila-abendua: planaren ebaluazioa eta proposamen berrien bilketa.

Egitasmoa, IKT-ekin harremana duten gaika antolatutako mintegi interesdunekin osatuko da; liburu digitala edo jabetza intelektuala eta liburutegi publikoak, besteak beste.

Munduko Paisaiak - Paisajes del mundo



Eusko Jaurlaritzako liburutegi zerbitzuak koordinaturik, Bilbo, Eibar, Ermua, Errenteria, Getxo, Hernani, Irun, Iurreta, Markina-Xemein, Zarautz eta Arabako Foru Aldundiko liburutegiek osatutako talde batek, “Munduko Paisaiak-Paisajes del Mundo” kanpaina martxan jarri du. Ekimen honen helburua da etorkinen kolektiboari euren kulturari atxikitzen laguntzea, bai eta erabiltzaile guztiek ikas dezaten beste kultura batzuekin elkarbizitzen eta era natural batean baloratu ditzaten.

Liburutegien Nazioarteko Egunean aurkeztu zen (Urriak 24) “Liburutegiak Topaleku-Las Bibliotecas, un lugar de encuentro” programaren barruan kokatuta dagoen programa hau. Honen bidez, hurbilketa eta kulturarteko integrazio horretan liburutegiek duten egiteko garrantzitsua bultzatu nahi izan da.

Kultura Sailak kanpainan parte hartzen duten liburutegietarako liburu-funtsen erosketari finantzatu du, bai eta antolatzen diren jarduerak ere.

Gaikako irakurketa-giden bidez, kartelen bidez eta orri-markagailuen bidez, hamaika herrialderen kultura hurbilarazten digu: Bolivia, Kolonbia, Angola, Nikaragua, Nigeria, Ekua-dor, Senegal, Errumania, Txina, Maroko eta Errusia.

Honelako ekimenak martxan jarri direnetik, ikusi da etorkin kopuru handiagoa hurbiltzen dela liburutegietara eskaintzen dituzten zerbitzu ezberdinak erabiltzeko.

Bestalde, kanpaina hau indartzeko, liburutegi publikoek, 200dik gora herrialde ezberdinetako egunkariak kontsultatzeko aukera ematen dute. Hauen artean, hogeitaz hiru egunkariak daude. Satellite bidezko teknologiarik esker eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako hitzarmen bati esker, eguneroko prentsa horren jatorrizko bertsiak eskuratu eta tamaina errealean inprima daitezke.

Lantalde honen jarduera eta proposamenak liburutegi zerbitzuaren webgunean biltzen dira, zeinetan kulturantzatasunarekin harremana duten loturaz osatutako lekua ikus daitekeen. Honetan, liburutegiei intereseko gaien inguruko sarbidea eskaintzen zaie.

Ikusi gehiago

Munduko Paisaiak - Paisajes del mundo



Udal Liburutegi berria Durangon

2009ko maiatzan inauguratu zen Durangoko Udal Liburutegi berria, Kalebarria eta Komentukalea artean dagoena.

Bere kokapenagatik eta funtzionaltasunagatik nabarmentzen den liburutegi honek 2000 metro koadro ditu, aurretik Kuru-tziagan zegoenak baino hiru aldiz gehiago.

Gune berri honek 300 irakurketa leku ditu, eta bere berritasunen artean, altzariez eta erosotasunaz gain, automailegu zerbitzua, wi-fi konexioa eta erabilera publikoa duten 16 ordenagailu nabarmentzen dira.

Egun, 43.000 dokumentu eta 3000 erregistro multimedia baino gehiago ditu. Hauetariko bakoitzak, automailegua eta material hauen kontrola errazten duen txipa darama.

Honetaz gain, liburutegiak zainza-sistema ezberdinak ezarri ditu eta momentu bakoitzean zenbat pertsona dagoen jasotzen duen gailu informatikoa ere.

Eraikin berean, Udal Artxibo Historikoa kokatzen da. Gainera, auditorio txiki bat ere badu, irakurtzen dugun bitartean musika entzun ahal izateko.

Helduentzako liburuak

Gaztelaniaz

La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina/ Stieg Larsson
Los hombres que no amaban a las mujeres / Stieg Larsson
La flor de la argoma / Toti Martínez de Lezea

Euskaraz

Bilbao-New York-Bilbao / Kirmen Uribe
Zazpi etxe Frantzian / Bernardo Atxaga
Otalorea / Toti Martínez de Lezea

Haurrentzako liburuak

Gaztelaniaz

El código del dragón / Tea Stilton
Tercer viaje al Reino de la fantasía / Geronimo Stilton
La montaña parlante / Tea Stilton

Euskaraz

Bubu ehiztari / Cyril Hahn
Lotarako Disney istorioak
Kroko eta lagunak / Jo Lodge

Helduentzako bideoak

Gaztelaniaz

El niño con el pijama de rayas
El planeta vivo
No es país para viejos

Euskaraz

Kutsidazu bidea, Ixabel
Ezkutuko plana
Brokeback mountain

Haurrentzako bideoak

Gaztelaniaz

Aprender y jugar con Tomm
Érase una vez el cuerpo humano
Caillou el explorador

Euskaraz

Hartz Txiki : 9 abentura
Eskerrik asko
Kikura Bikura eta Lakirikon

Helduentzako diskoak

Gaztelaniaz

A las cinco en el Astoria / La Oreja de Van Gogh
Gato negro, dragón rojo / Amaral
Amaia Montero / Amaia Montero

Euskaraz

Etxea / Kepa Junkera
Gu gira
Itsas ulu zolia / Benito Lertxundi

Haurrentzako diskoak


Gaztelaniaz

1 2 3, las tres mellizas
La increíble ¡pero cierta historia de Caperucita Roja
Vivamos la música / Roser Cabacés


Euskaraz

Piratak / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Eskerrik asko! / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Mari Motots / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Alta emandako irakurle berriak



OPAC-era kontsultak




Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen online katalogoak bost urte bete ditu 2009an. Urte hauetan, datuek goranzko joera nabaria izan dute liburutegien estatistikak egiteko unean erabiltzen diren adierazle garrantzitsuetan.

Honela, azken urteko ekitaldian 38.074 erabiltzaile gehiago zenbatu dira eta egun irakurleen kopurua 415.000 gorakoa da. Hauek, 3.250.000 ale baino gehiago mailegatzeko eta kontsultatzeko aukera izango dute (2008an baino 250.091 gehiago). 2009an, aurreko urtean baino 200.000 mailegu gehiago egin dira, orotara, 1.985.780.


Bestalde, teknologia berrien erabilera sendotu egin da erabiltzaileen artean. Izan ere, online zerbitzuak geroz eta gehiago erabiltzen dituzte funtsetara eta EIPS-k eskaintzen dituen aukera ezberdinetara jotzeko. Honen ildotik, OPAC-ak 1.245.000 kontsulta baino gehiago izan ditu, aurreko urteko ekitaldian baino %17a gehiago.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea 172 liburutegik osatzen dute. Hauek, 217 zerbitzupuntutan eta 224 sukurtsaletan banatzen dira. Gainera, azken urtean hamabost zerbitzu-puntu berri ireki dira. Datu honek argi uzten du sarearen ibilbideak, martxan hasi zenetik, izan duen etengabeko hazkundea.

Maileguak



Irakurleak orotarra



Liburutegien arteko mailegua online sarean

Urteak pasa ahala, sendotuz joan den zerbitzu bat da eta, ondorioz, etengabeko hobekuntza horretan jarrai dezala espero da. Azken urteotako esperientzia dela medio, zerbitzua hobetuz joan da eta aldez aurretik egin izan diren akatsak konpondu ahal izan dira. Izan ere, Euskadiko Irakurketa Sareko erabiltzaileen artean ongi balioetsitako zerbitzua bihurtu da.

Orotara, 164 harrera-mahaik osatzen dute liburutegien arteko mailegu sarea, modu honetan banaturik: Araban 16, Bizkaian 77 eta Gipuzkoan 71.

Banaketa egiteko orduan, iazko 13 ibilbideak mantendu dira: Araba eta Bizkaian launa burutzen dituzte, Gipuzkoan, berriz, bat gehiago.

Sareko mailegu-zerbitzuak liburutegietako bildumak osatzea erraztu lezake, baina ez ditu bildumok ordezkaten. Horregatik, eta kontuan hartuta zer nolako ahalegin ekonomiko eta kudeaketakoa eskatzen duen, komeni da modu arrazoizko batean erabiltzea.



Liburutegi Zerbitzuaren presentzia sare sozialetan

1. **Blog** (Liburutegiaktopaleku)
2. Sareko **Facebook**-a
3. Sareko **Twitter**-a @liburutegiak
4. **Flickr** (Sareko ekintzen argazki-albuma)

Liburubila, online sareko katalogoaren bilatzaile berria

Azkenik, online sareko katalogora aquabrowser txertatu da, Interneteko bilatzaileen antzera bilaketak egiten dituen bilatzaile berria. Honek intuitiboagoa egiten du eta erabiltzaileei bilaketa bibliografikoak errazten dizkie.

Bilaketa termino bat sartu eta mapa kontzeptual bat sortzen da. Honetatik, bilaketa terminoaren itzulpen, thesaurus, sinonimo eta asoziazio posibleetara joateko aukera izango dugu.

Erdialdean, dokumentuei buruzko informazioa laburra ageri zaigu, bakoitzaren azalarekin. Eskuinaldean, berriz, emaitzak jakiteko aukera dugu hizkuntza, formatu, gai, geografiko etab.-ean klik bakarra eginez.

Liburutegi publikoa eta eduki digitalak: erronkak eta aukerak

Lema honekin, azaroaren 3tik 5era, Liburutegi Publikoen V. Biltzar Nazionala ospatuko da Gijonen.

Euskadiko liburutegi publikoen ordezkari gisa Eva Alberdik (Eibarko liburutegiko arduradunak) batzorde zientifikoan parte hartuko du. Honetan, Biltzarrean izango diren komunikazioak, txostengileak eta parte-hartzaileak aukeratzen dira.

Gehiago jakin nahi izanez gero ikus: <http://www.mcu.es/bibliotecas/novedades/2010/novedades01.html>

Aldaketak Laudioko liburutegian

Patricia Acebes izango da oraindik aurrera Laudioko Liburutegiaren arduraduna, M^a Angeles Bernardo jubilatuta. Agur esateko, esker oneko gutun bat idatzi zien sareko liburuzain guztiei eta Liburutegi Zerbitzutik pasa zen. Bere bizitzaren aro berrian gurekin izandako lan harremanen transmititzen zuen gogo handia eta grina mantendu dezan opa diogu.